

# PENA TA POZA.

---

(ON DOMINGO AGIRRE-KOARI)

Triste dago ama bat  
Seaska-aurrian,  
Begirik ichi gabe  
Loaren mendian;  
Ume zurtza bat dauka  
Luzaro gaitz pian,  
Ezerchokin iñola  
Senda eziñian.  
Zer egin ezdakila  
¡Ai!... mintsu batian  
Daguela gaišua  
Gaitzezko katian,  
Arturik seaskatik  
Gošatu nayian,  
Jartzendu aur eriya  
Bular muturrian.  
¡Bañan! ume zurtz ura  
Asnas burrunbian  
¡Illa! gelditu zaiyo  
Bere magalian;  
¿Zér ote zuben senti  
Amak barrunian,  
Illa ikusirikan  
Magala-gañian?  
¡Pena! maite izanik  
Bere biyotzian.  
¡Poza! arkidalako  
Aingeru artian.

FELIPE KASAL OTEGI.

---